

Balorezko proposamena:

Gure enpresak zeliako, diabetiko eta beganoei eskainitako produktuak salduko ditu. Horretarako, Tolosako erdialdean irekiko dugu denda, beraz herriko jendearekiko gertutasuna lortuko dugu. Supermerkatua herrian egongo denez, erosleei honelako produktuak eskuratzea errazago egingo zaie, eta ez dute beste toki batera mugitu behar izango. Gure zerbitzuaren balioa kualitatiboa izango da, prezio baxuak edo kantitate handiak izan beharrean, produktu gutxiago baina kalitatezkoak salduko ditugulako.

Gure lehiakideak gure ondasun berdinak saltzen dituztenak dira, gaur egun, adibidez, edozein supermerkatu handietan horrelako produktuak saltzen dituzte. Halere, badaude gure lehiakideengandik bereizten gaituzten ezaugarriak, esaterako, astean behin 2 orduko sukaldaritza saioak eskainiko dizkiegu gure bezeroei, bertan bai pastelak, bizkotxoak eta beste hainbat produkturen errezetak ikasi eta garatuko ditugu.